



EKIMENEN KUTXA

Gizarte eta komunitatea Animazioa

UPV/EHU Lan Harreman eta Gizarte
Lagintza Fakultatea

2018-2019ko Ikasturtea

Irakaslea-tutorea: Miren Kontxesi
Berrio-Otxoa



2019KO OTSAILAREN 18A

Cristina Rojo, Garazi Ojanguren, Maddi Jauregi eta Maialen Aguado

AURKIBIDEA

SARRERA

1. Domekäero.....	6
2. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik.....	10
3. Gaztedi Errugbi Talde Inklusiboa.....	15
4. Historias de Paz.....	18
5. Auzolanean gara!	26

SARRERA

Animazio Soziokomunitarioa, egile eta teoria ezberdinen araketa egin dutenek ikusi bezala, dimentsio anitzak barnebiltzen dituen kontzeptua da. Froufe eta Sanchez autoreek (1998) prozesu arrazional eta sistematiko gisan ulertzen dute ASK, helburu zehatz eta argien bidez, pertsonen/taldean antolakuntza/organizazioa bilatzen duena, kulturen oinarria duen parte hartze aktiboaren bitartez proiektu eraginkorrak sortuaz, errealitate sozialaren eraldaketa burutzeko. Beraz, “parte hartze aktiboa”, “antolakuntza”, “persona/taldea”, “kultura” eta “errealitate sozialaren eraldaketa” elementu esanguratsuak izango dira prozesu honen baitan. Era berean, zedarritzen eta definizio bakarra ematen zaila den adigai honek, praktikan du azken helburua.

Honen harira, Gizarte eta Komunitate Animazioaren irakasgaiaren markoaren barruan landutako edukien izate praktikoa ikuskatze aldera, ondorengo atalean Animazio Soziokomunitarioaren eremuaren barnean kokatzen diren ekimenak xehetzen dira. Hauexek dira, Ander-Eggen (2000) eta Froufe eta Sanchezen (1998) ezaugarriak barnebiltzen dituzten eta errealitate zehatz batean eragitea bilatzen duten proiektuak alegia.

Horren harira eta irakasgaiari landu bezala, bai tertulia dialogiko bidez bai testuen irakurketa eta ideien ustiaketa bidez, Animazio Soziokomunitarioa aisiarekin zerikusia duen prozesua izan daiteke, baina aisiaren dimentsio guztiak kontuan hartuta. Cuencak (2012) aisiaren lau funtzio nagusi bereizten ditu¹: funtzio pertsonalak eta psikologikoak (konpentsazio pertsonalak, betetasuna, gozamina, autoerrealizazioa), funtzio sozialak (sozializatzeko tresna direnak, elkar harremantzeko, sare sozial sendoak eraikitzeak), funtzio ekonomikoak (kontsumoarekin loturik doazenak) eta azkenik, funtzio berritzaileak (sormena garatzeko, hausnartzeko, katarsiarako). Aisiak, ez du zertan denbora libre hutsala izan behar, elkarbizitza edo erantzukizun soziala hartzeko gunea izan

¹ Cuenca, Manuel (2012). Sarrera. Manuel Cuenca, *Aisiazko Ikaskuntzak Hainbat Ikuspegiatik* (11-18), Deustu Digital

daiteke, betiere librea eta inposatua ez dena. Zentzu honetan, ASKak eta Aisiak harreman zuzena izan dezakete.

Bestalde, lan honen bidez, norberak burututako ekimenen bilaketatik eta talde bilaketatik sortutako ekintzen bilketa burutzen da, ASKak hartzen dituen dimentsioak ikusi eta proiektuek dituzten alderdi guztiak ulertzeko helburuz. Fitxak, sintetizazio-lana burutzeko aukera ematen du, eta era berean, atzean utzitako informazioa freskatu eta biltzeko jarduera ere bada.

Horretarako, lantaldea osatu bezain azkar, bigarren lau-hilabeteko honetan gauzatuko ditugun lanen gidan aurkitzen diren jarraibideak irakurri eta norberak banakako lanean egindako proiektuen bilaketaren emaitzak konpartitu dira. Ostean, proiektu berrien bilaketari hasi diogu, originaltasuna eta berritzailetasuna ezaugarri gisa dituzten ekimenak aurkitzeko xedez. Bilaketa honetan ere, auzolan gisan ulertzen diren ASKko ekintzen bilaketa egin da eta ostean, "auzolan" kontzeptua modu egokienean zedarritzen eta islatzen duen ekimena garatzeko lana burutu da. Amaitzeko, informazioa Power Point batean laburbildu da, beste ikaskideekin lana konpartitzeko xedez.

lido beretik, lana burutzeko zenbait oztopo egon dira, baina baita ekimen horien inguruko informazioa emateko erraztasunak ere. Zailtasun edo oztopoei begira, taldekideek lehenagotik aukeratuak zituzten ekimenen berritzailetasunaren edo originaltasunaren gabezia izan da bat, bi kasurekin gertatu baita eta bi ekimen ezberdinen aukeraketan murgildu dira. Bestetik, informazio iturriei dagokienean, web orri batzuen informazio gabezia edo kalitate eskasa oztopo garrantzitsua izan da, eta egoera honi konponbidea bilatuz, zuzenean komunikatzea erabaki da (korreo elektronikoa bidez alegia). Halaber, ekimenetan parte hartu izana ere, erraztasuna izan da, lehen eskuko informazioa eduki delako fitxa elaboratzeko orduan.

Badira egile batzuk auzolana ASKaren barruan kokatzen dela esaten eta argudiatzen dutenak. Froufe horietako bat da eta berak dionez, auzolanak baditu hainbat ezaugarri ASK barruan kokatzen dutena. Batetik, taldekideen arteko harremanak konfiantzan oinarritzen dira eta beren arteko komunikazioa egokia

izaten da elkarlanean aritzeko. Bestetik, partaide guztien parte-hartzea eskatzen du lana elkarrekin burutzeko eta horiek ardatz moduan hartuta, elkarrekin partekatzen duten helburua lortzeko. Horrekin loturik, argi dago inor ez dagoela behartuta auzolanean aritzea, izan ere, borondatezko jarduera bat da. Horregatik, partaideen konpromezua ezinbestekoa izaten da.

Horretaz gain, beste ezaugarrietako bat, banakakoa taldearekin identifikatzen dela litzateke ideia eta helburuak partekatuz eta horrela, indibidualki ere konfiantza hartzeko aukera izaten dute eta beren gaitasunez ohartzeko ere.

Auzolana ASK barruan kokatzen duen beste egileetako bat Ander-egg da eta honen arabera, indibidualismotik eta pasibitatetik ateratzeko balio du. Berak azaltzen duenez, giza-harremanak areagotzeko eta pertsonak gizarteari beren aportazioa egiteko auzolana bezalako ekimenak beharrezkoak dira. Horretaz gain, ekimen hauetatik gizarteko hiritarren sendotzea, mugimendu asoziatiboa eta gizarte-harremanen sustapena azpimarratzen ditu egile honek.

Ander-Egg-ek ASK ekimenak bost kategoria nagusitan sailkatzen ditu eta auzolanei dagokienez, jarduera sozialetan kokatzen ditu. Izan ere, berak azaltzen duenez, jarduera hauek gizarteko bizitzan eta behar kolektiboetan zentratzen dira eta horiei konponbidea emateko jarduera bateratuak izaten dira.

1. Domekäero

Domekäero, Durangon gauzatzen da, Bizkaian, eta Durangon bizi diren 11-14 urte bitarteko gazte guztiei zuzenduta dago. Proiektu hau, udaletxeko kultur eremuak kudeatzen du, Berbaro Elkartea eta Plateruena Kafe Antzokiaren laguntzarekin. Bertan, 100 haur parte hartu dezakete, bi taldeetan banaturik, 6-10 eta 11-14 urteen arabekoak, adina kontuan izanda hobeto egokitzen zaizkien ekintzak prestatu ahal izateko. Martxotik ekainerako iraupena du, eta bertan gauzatzen direna ekintzak, domekero aurrera eramaten dira, arratsaldeko 16:00etatik 19:00 arte.

Programan honen helburua, adin horretan dauden gazteei aisialdi alternatiba bat eskaintzea da, domeketan burutzen dena, eta euskaraz. Edonola ere, programa hau 2018. urtean martxan jarri zen, adin horretan zeuden gazteen gurasoek, haien seme-alabek aisialdia burutzeko irtenbide bat burututako aldarrikapenarengatik sortua.

Eskaera horri erantzun bat emanez, udalak Domekäero aurkeztu zuen, eta bertan egiten diren ekintzak, herriko Elkartegian eta Plateruena Kafe Antzokian burutzen dira. Aisialdi alternatiboa eskaintzeaz gain, euskara bultzatzeko inizatiba ere du proiektu honek, izan ere, gauzatzen diren jardute guztiak euskaraz dira, haur zein gazteen artean euskaraz hitz egiteko ohitura sustatzeko.

Haur eta gazteentzako aisialdi programa hau, guztira 28 saio ditu, eta saio bakoitzean ekintzak anitzak burutzen dira: esku-lanak, sukaldaritza tailerrak, sormen tailerrak, herri kirolak, dantzak, mahai jolasak, skate eta graffiti tailerrak, kale jolasak... Eta jarduera guzti hauek, hezitzaile profesionalen eskutik antolatu, kudeatu eta aurrera eramaten dira (Berbaro Elkartearen baitan lan egiten dutenek).

Adierazitako ekintzaz gain, gauzatzen diren jolas guztiak jolas kooperatiboak dira, haur eta gazteei aisialdi desberdina eskaintzen den bitartean, elkarlana eta hizkuntza indartzeko bidea zabaltzen du.

1.Taula. Domekæerori buruzko karakterizazio fitxa

ASK ekimenaren karakterizaziorako fitxa		
Egileak: Cristina Rojo, Garazi Ojanguren, Maddi Jauregi eta Maialen Aguado		
Ekimenaren izena	Domekæero	
Urtea edo epealdia	2018. urtea, martxotik ekainera	
Identifikazio-datuak	Entitatea edo talde sustatzaile, antolatzailea	Durangoko Udala (antolatzailea) Durangoko familien Elkarte (sustatzailea)
	Zuzendaritza	Durangoko Udala
	Lokalizazioa edo esku-hartze tokia	Durango: Elkartegia eta Plateruena Kafe Antzokia
	Kontaktua	Pinondo Plaza, 1, Durango, 48200, Bizkaia 946 03 00 30
	Web-orria	http://www.durango-udala.net
Abiapuntua (sortzeko arrazoia)	11-14 urte bitarteko haur eta gazteen gurasoek asteburuetan aisialdia edukitzeko egindako aldarrikapenagatik sortu zen proiektu hau. Izan ere, adin horretako gazteek euren aisialdia burutzeko toki edo alternatiba urriak zituzten, horren aurrean, gurasoek, eskakizuna zabaldu zieten udaletxeari.	
Misioa/ Helburu orokorra	11-14 urte bitartean dauden gazteei euskaraz aisialdi alternatiba bat eskaintzea.	
Jarduera nagusiak	Hauek dira burutzen diren jarduera nagusiak: esku-lanak, sukaldaritza tailerrak, sormen tailerrak, herri kirolak, dantzak, mahai jolasak, skate eta graffiti tailerrak, kale jolasak eta jolas kooperatiboak.	
Sektorea (azaldu)	Entitatea	Berbaro Elkarte (irabazi asmorik gabeko elkarte) eta Plateruena Kafe antzokia (proiektuaren kudeaketa eta gauzatzea)
	Administrazioa	Durangoko Udalak (finantzazioa)
	Besterik	Proiektu hau burutzeko Durangoko Udalak Berbaro eta Plateruena Kafe antzokiari ematen die finantzazioa, hortaz, udalaren proiektu bat da, baina honen kudeaketa eta antolaketa adierazitako bi elkarten eskuetan dago.
Zein herritarrekin egiten den lan	11-14 urte bitarteko gazteekin eta aldi berean, Berbaro Elkartean lan egiten duten Durangoko langileekin.	
Esku-hartze eremua	Aisia	Aisiaren funtzioak aztertuz, proiektu honek hainbat funtzio betetzen ditu: dimentsio pertsonalean, onura pertsonala ekartzen

		duen ekimena da, gaztetxoei euren aisialdia modu alternatiboan burutzeko tresnak eskaintzen zaizkielako. Bestetik, funtzio soziala ere betetzen du, gaztetxoek artean euskara landu eta aisialdi denbora aprobetxatzeko talde landa bultzatzen da.
	Gaztetxoak	11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoak hartzen dute parte.
Baliabideak	Ekonomikoak	Langileen soldatak
	Giza-baliabideak	Parte hartzen duten gazteek, Berbaro Elkarteko, Plateruena Kafe Antzokiko eta Durangoko udaletxeko langileak.
	Materialak	Ekintzetarako desberdinetarako beharrezko materiala (esku lanak, boligrafoak, folioak, mozerroak, musika, mahai jolasak...).
	Logistika	Durangoko Elkartegia eta Plateruena Kafe Antzokiko
Profesionalen perfila	Monitore profesionalak izan behar dira eta hauek rol zehatz batzuk bete behar dituzte, antolaketa, dinamizatzea eta ebaluatzekoak, hain zuzen.	
Zerk egiten du ekimen hau ASK ?	<p>Domekæero proiektu honek, Sanchez eta Froufe-ren ASK-ren ezaugarriak barneratzen ditu². Parte hartze kolektiboa gauzatzen da, modu aktiboan inplikatzeko direlako parte hartzaileak, gainera, elkartasuna bultzatzen du. Honez gain, bizitza asoziatiboaren aldekoa da, parte hartzaileak modu boluntarioan parte hartzen dutelako. Gainera, bizitzaren kalitatearen hobekuntza bilatzen du proiektu honek, prozesu parte hartze soziokulturala sortzea bideratutako ekintza multzoak baitira, parte hartzaileetan zentratutako ekintzak.</p> <p>Adierazitakoaz gain, Ander-Egg-ek eskaintako ASK-erako 3 jardunbideekin bat egiten dute³. Lehenik, formakuntza jarduerak burutzen dira, sormen, skate eta graffiti tailerrak hain zuzen. Bigarrenik, jarduera artistikoko ez-profesional ere ematen dira, dantzak edota musikarekin loturikoak adibidez. Eta hirugarrenik, gauzatzen diren jolas guztiek, jarduera ludikoen baitan kokatzen dira.</p>	
Beste ezaugarri garrantzitsuak:	Proiektu honetan lan egin zuten monitore guztiek, gazteak eta ikasleak ziren (langile batek jakinarazi digun moduan), hortaz, gazteen artean lana bultzatzen da. Honetaz gain, herriaren eskaera batetik sortua izatea adierazgarria eta esanguratsua iruditzen zaigu, udalak eta bertako elkarteek euren eskariak	

² Froufe, S. & Sánchez M^a Ang. (1998): Animación sociocultural. Nuevos enfoques. Edic. Amarú. Salamanca.

³ Ander-Egg, Ezequien (2000). Las actividades específicas a partir de las cuales se puede realizar la animación sociocultural. Ezequien Ander-Egg, Metodología y práctica de la animación sociocultural. Madrid: CCS.

jasotzeko prest daudela adierazten duelako eta are garrantzitsuagoa, erantzun bat eskaintzeko prest daudela.

Iturria: Egikari propioa

2.Taula. Domekæero irudiak

ASK ekimenaren karakterizatzeko irudia (argazkia edo-eta beste)

Egileak: Garazi Ojanguren

Argazkia:



Beste irudi bat:

DOMEKÆERO
LOS DOMINGOS TAMBIEN SE SALEN

marzo / 16:00 - 19:00 h

DOMINGO	IKARTEGIA	PLAZAURUNA
11	8-10 urterekin • Juegos de conocimiento • Uteraco Pyloso (Inanbidia) • Juegos de mesa	11-13 urterekin • Juegos de conocimiento • Bolos customizados (bolari) • Juegos de mesa
18	4-10 urterekin • Juegos cooperativos • Puzte Das (inanbidia) • Mandakak	11-13 urterekin • Juegos cooperativos • Puzte Das (inanbidia) • Mandakak
25	8-10 urterekin • Caja mágica • Origami (inanbidia) • Juegos de mesa	11-13 urterekin • Caja mágica • Puzte Das (inanbidia) • Juegos de mesa

ACTIVIDADES ESPECIALES

DOMINGO	PLAZAURUNA
17	11-13 urterekin • Taller de Skate y Graffiti
18	11-13 urterekin • Teatro Baserrin Amets

INSERIPCIÓN: Irudiak que realitzatzen dira antzerkian, en la oficina municipal de Información Juvenil de Treviño Euzko, cumplimentando una hoja de solicitud la **última semana del mes.**

DURANGO
Luz / Ayuntamiento
Euzko Foru Erkidegoa
Euzko Legebiltzariaren Baita

Iturria: Egikari propioa

2. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik

Euskadi Lagunkoia Sustraietatik proiektua, OME-ren zahartze aktiboaren inguruko proiektu batetik sortu zen, gaur egungo gizartean kontuan hartzea beharrezkoa den esparru bat dela definituz. Gaur egungo gizartea zahartze prozesu batean dago eta bizi itxaropena geroz eta luzeagoa da orokorrean. Honek adineko pertsonen kolektiboarekin lan egitea garrantzitsu bihurtzen du, azken finean, jubilatutako bizitza horretan, bizi kalitate eta parte-hartze soziala bermatu beharra baitago.

Gida praktikoa azaltzen den bezala, Euskadi Lagunkoia Sustraietatik tresna eraginkorra da pertsona eta komunitateentzat, bizi kalitatea hobetzeko beren ahalmen guztia ustiatzen eta gizartean beren behar, nahi eta gaitasunen arabera parte hartzen laguntzen baitie; horrez gain, laguntza, babesa eta segurtasuna eskaintzen die eta mugimendu honen eragile nagusi bihurtzen dira, proiektuaren garapenaren protagonista, eredu eta gidari baitira.

Programaren helburu nagusiak hurrengoak izango dira; Adineko pertsonen Euskadiko herri eta hirietan ongizatea sortzeko duten potentziala aprobetxatzea, Komunitateko parte-hartze prozesuak sortzea eta sustatzea, Euskadiko ekimen lagunkoien sare bat sortzea eta Herritarren bizi kalitatea hobetze aldera, inguruneetan aldaketak egin daitezela ahalbidetzea.

Maiz adinekoak proiektu eta programen jasotzaile eta erabiltzaile izaten dira, beraiek izanik protagonista baina antolakuntza eta sortze prozesuan ere baliotsuak direla erakusten du programa honek. Hiriak eta herriak gaur egungo beharretara egokitu behar dira eta baita adineko pertsonen kolektibo zabalaren beharretara ere bai, hau izanik egunerokotasunean muga gehien izaten dituzte kolektiboetako bat. Egokitzapen eta garapen horretan, adinekoen hitza eta ikuspuntua kontuan hartzen da programa honen bitartez, talde-eragile edo talde fokalean beraiek barneratuz.

Eusko Jaurlaritzaren inizatiba bat den arren, udalerrri ezberdinetan gauzatzen da proiektua, Eusko Jaurlaritzak emandako pausu eta arauak kontuan hartuta.

Horregatik, udalerrri bakoitzean ekintza eta prozesu ezberdinak aurrera eramaten dira, beti ere, finkatutako zortzi alorren inguruan. Herrietako zortzi alor ezberdinetan egin beharreko aldaketa eta hobekuntzak ikertu eta aurrera eramaten dira adinekoekin batera, zortzi alor hauek hurrengoak izanik; garraioa, etxebizitza, parte-hartze eta gizarte sarea, errespetua, herritarren parte-hartzea, komunikazio zein informazioa, gizarte eta osasun zerbitzuak eta aire zabaleko leku zein eraikinak.

Honetarako, diagnosi osatu bat egiten da profesionalen aldetik, alor hauetan egon daitezken hobetzeko puntuetan begirada jarritz. Ondoren, adin nagusiko talde fokalaren laguntzaz eta elkarrizketa zein eztabaida ezberdinak erabiliz, alor hauen azterketa sakondu eta beraien ikuspuntua kontuan hartzen da, beraien bizi kalitate eta ongizatean jarritz abiapuntua.

3. Taula. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik karakterizazio fitxa

ASK ekimenaren karakterizazio fitxa		
Egileak: Cristina Rojo, Garazi Ojanguren, Maddi Jauregi eta Maialen Aguado		
Ekimenaren izena	Euskadi Lagunkoia Sustraietatik	
Urtea edo epealdia	2005.urtean jarri zuen martxan OME-k eta Euskadin 2014an hasi zen proiektua martxan jartzen, gaur arte.	
Identifikazio-datuak	Entitatea edo talde sustatzaile, antolatzailea	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailak sustatuta eta Matia Fundazioak antolatu eta aurrera eramandako ekimena da.
	Zuzendaritza	Eusko Jaurlaritza, Matia Fundazioa eta udalerrri lagunkoietako udalak.
	Lokalizazioa edo esku-hartze tokia	Euskadi mailan dago martxan, udalerrri ezberdinetan, udalerrri lagunkoi deritze parte-hartzen duten herriei.
	Kontaktua	012 telefonoa
	Web-orria	www.euskadilagunkoia.net
Abiapuntua (sortzeko arrazoia)	Zahartze aktiboaren printzipioari erantzunez, OMEren <i>Age-friendly Environments Programme</i> ekimena Euskadira egokitu nahi izan da, Euskadiko egoera soziopolitiko kontuan hartuta Osasuneko Mundu Erakundeak darabilen metodologia aplikatuz. Horrez gain, biztanleriaren zahartzearen aurrean eta adineko pertsonen bizi itxaropen altuaren aurrean, autonomi erkidego gisa,	

	fenomeno hau ikertzeko eta honekin lan egiteko beharra ikusi da, kolektiboaren potentzialitatea eta aberastasuna kontuan hartuta.	
Misioa/ Helburu orokorra	Adineko pertsonak Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizate-sortzaile gisa eskaintzeko dutena baliatzea da proiektuaren helburu orokorra, herri eta hirien garapen zein egokitzapenean ez soilik honen erabiltzaile zein zabaltzaile, baizik eta sortzaile ere izan daitezten.	
Jarduera nagusiak	<p>Euskadi Lagunkoia zortzi eremutan eramaten ditu aurrera bere jarduerak; garraioa, etxebizitza, parte-hartze eta gizarte sarea, errespetua, herritarren parte-hartzea, komunikazio zein informazioa, gizarte eta osasun zerbitzuak eta aire zabaleko leku eta eraikinak diren eremuetan, alegia.</p> <p>Durango adibidez, aurreko arloak kontuan hartuta eta herrian gauzatu diren ekimen garrantzitsuenak aukeratuta, hurrengo ekintza zehatzak gauzatu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mugikortasun seguruen inguruko kontzientziak eta formakuntza: txirrindulari eta oinezkoen arteko bizikidetasuna lortzeko partekatzen dituzten guneen inguruko arautegia banatu... • Hirigintza eta gune publikoen inguruan talde eragileak dituen proposamenak batzea • Parke "biosaludable" baten sorkuntza • Proiektuaren logoa muraletan pintatu 	
Sektorea (azaldu)	Entitatea	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako saila
	Administrazioa	Udalerrri parte-hartzaileek eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako sailak
Zein herritarrekin egiten den lan	<p>Adineko pertsonekin lan egiten da, hauen artean sailkapena eginez eta talde fokalak edo talde-eragileak sortuz. Alde batetik, 65etik 74 urte bitarterarteko gizon eta emakumeak (bai estatus sozioekonomiko baxua dutenak eta baita ertaina dutenak) eta bestalde, 75 urte eta gehiagoko emakume eta gizonak (estatus sozioekonomiko ertaina eta baxua).</p> <p>Adineko pertsonen gain, zaintzaile informalei ere zuzenduta dago programa, adineko pertsonen dependentziaren araberakoa izanik hauen parte-hartzea.</p>	
Esku-hartze eremua	Aisia	Aisiaren funtzioak aztertuz, proiektu honek hainbat funtzio betetzen ditu: dimentsio pertsonalean, onura pertsonala ekartzen duen ekimena da, adin nagusiko pertsonen autoerrealizazio eta balioa landuz, eta beraien ikuspuntua herriaren garapenean txertatuz. Bestetik, funtzio soziala ere betetzen du, kolektiboaren parte-hartzearen bitartez,

		herriarekin harremantzeko eta sare-sozialak sendotzeko balio baitie adin nagusiko pertsoneri. Azkenik, funtzio berritzailea ere badu, hausnarketarako eta sentsibilizatorako atek irekiz.
	Adineko pertsonak	Adineko pertsonekin lan egiten da oro har, beraien parte-hartzea beharrezkoa izanik talde fokaletan. 65 urtetik gorako pertsonak zehatzago esanda.
Baliabideak	Ekonomikoak	Eusko Jaurlaritzaren eta udalerrri bakoitzaren izango da ekimenaren diru-iturri nagusi.
	Giza-baliabideak	Parte-hartzaileak eta profesionalak
	Materialak	Ekintzaren arabera asko aldatuko dira baliabide materialak. Baina prestaketa prozesuetarako informazioa biltzeko materiala erabiliko da; dokumentuak, aktak, informazio txostenak eta abar. Ondoren aurrera eramango den ekintza bakoitzak bere materialak zehaztuko ditu. Adibidez Durangon egin diren ekintzetan; margoak, pintzelak, informeak, araudia ...
	Logistikoak	Bilera gela
Profesionalen perfila	<p>Prozesuan parte-hartuko duten profesionalak oro har, gizarte langileak eta hirugarren adinekoen arloko teknikariak izango dira. Adibidez Durangoko udalerrian, hirugarren adineko hiru teknikari eta ikerketa talde batek osatu du profesional taldea.</p> <p>Profesionalak lehenengo, diagnosi bat egiteko gaitasuna erakutsiko du, lan esparruaren ikerketa bat aurrera eramanez eta beraz, ikertzaile lana eginez.</p> <p>Ondoren talde fokalak sortuko dira diagnosian irteerako emaitza ezberdinak kontuan hartuz eta kasu honetan, lantalde edo profesional taldeak moderatzaile eta laguntzaile lana egingo du talde fokalarekin lan egiten duen momentu orotan (eztabaida sortuz, parte-hartzaileak hitz egitera bultzatuz ...). Gainera, galdera berriak edo gai berriak jaso beharko ditu, hurrengorako kontuan hartzeko. Giro egokia sortzea eta mantentzea ere bere lana izango da. Oharrak eta grabazioak jasoko ditu, bertako datuak eta informazioa aztertzen edo interpretatzen lagunduz talde fokalari.</p> <p>Amaitzeko, ebaluatzaile gisa ere arituko da, egindako prozesua ebaluatuz eta hobekuntzak proposatuz.</p>	

<p>Zerk egiten du ekimen hau ASK ?</p>	<p>Froufe eta Sanchez-ek definitzen dutenez, ASK definitzerako orduan, bost ezaugarri hartzen dituzte kontuan eta hauetako lehenengoa parte-hartze kolektiboa da. Programa honek ere, parte-hartze kolektiboa bultzatzen du, gizabanakoak komunitateko parte-hartze batera bultzatuz eta komunitatearen erabaki eta aldaketa ororen parte direla erakutsiz. Elkartze eta boluntariora ere aipatzen dira ezaugarri hauetan, eta esan beharra dago, programa edo ekimen honetan parte-hartzen duten pertsonen inongo irabazi asmorik gabe eta sari materialik gabe parte-hartzen dutela, modu boluntarioan. Hirugarren ezaugarri gisa, gizabanakoaren protagonismoa dugu eta argi dago adineko pertsonen protagonismoa helburuetako bat dela programa honetan, hauen gaitasun eta potentzialitatea erabili nahi baita herriaren garapen eta hobekuntzarako. Intergenerazionala ere bada, nagusiki adineko pertsonekin lan egiten den heinean eta azkenik, bizi-kalitatea hobetzen du programak. Azken finean, adinekoen parte-hartze sozialaren bitartez, hauen ongizate psikologiko zein fisikoari zin egiten die ekintzek, beraien ekarpenak garrantzitsuak eta baliotsuak direla erakutsiz eta herriaren hobekuntzan beharrezkoak direla sinestaraziz.</p> <p>Ander Egg egileak, jardunbide jakin batzuk zehazten ditu ASK-ko ekintzak sailkatzerako orduan. Ekintza hau, formakuntza ekintza gisa har daiteke, azken finean, errealitateaz eta egoeraz formakuntza sakon bat jasotzen baitute parte-hartzaile eta baita profesionalak; bilerak eginez, tailerretan eta kurtsilloetan parte-hartuz eta abar. Jarduera ludikoa ere bada, adibidez Durangoko adibidean, adineko pertsonen gimnasia zein heziketa fisikoa egiteko guneak sortu baitira, adinekoek proposaturik hau herriarentzat. Eta noski, jarduera soziala ere bada, azken finean, behar kolektiboari arreta jartzen zaielako, kasu honetan, adinekoen beharrei, eta konponbidea emateko jarduerak burutzen direlako.</p>
---	--

Iturria: Egikari propioa

4. Taula. Euskadi Lagunkoia Sustraietatik irudiak

ASK ekimenaren karakterizatzeko irudia (argazkia edo-eta beste)	
Egileak: Durangoko Lagunkoia Sustraietatik proiektuaren kudeatzaileak	
Argazkia:	
	
Beste irudi bat:	
	

Iturria: Egikari propioa

3. Gaztedi Errugbi Talde Inklusiboa

ASK barruan ere beste ekintza mota bat kirol-aktibitateak dira. Hauek, ASK barruan kokatzeko eta aurrera eramateko jarduera bezala izateko, denboraren erabilpen egokiago batetarako izan behar dira. Baita pertsonen egoera fisiko eta psikikoak hobetzeko asmoz ere. Gainera, Solidaritatearen zentzua sustatzeko eta garatzeko helburua edukitzea garrantzitsua da, bai eta osasun arazoak, psikikoak eta portaera-arazoei aurre hartzeko ere.

Kirol aktibitateen bidez onura ugari sortzen dira gizartearentzat, besteak beste, delinkuentziaren prebentzio moduan, drogaren aurkako borrokan laguntza, bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta adineko pertsonen osasuna hobetzea. Horren adibide garbia dugu Gasteizko Errugbi talde inklusiboa.

Gasteizen Gaztedi izeneko Errugbi talde inklusiboa dago non adimen urritasuna duten pertsonak eta adimen urritasunik ez duten pertsonak, denek batera osatzen duten. Gaztedi Errugbi Taldearen asoziazioak barne-proiektu moduan sortu zuen 2012. urtean eta gaur egun martxan jarraitzen du. Bertan, entrenatzaileak dituzte eta hauek, jokalariai entrenatu, dinamizatu eta ebaluatu egiten dituzte talde-kohesioa eta errespetua oinarri hartuta.

Beren helburuetako bat, bazterketa jasaten dutenen gizarte integrazioa bultzatzea da eta horretarako, larunbatero elkarrekin entrenatzen dute eta gainera, elkarrekin jokatzen dituzte partiduak. Horretaz gain, munduko txapelketetan ere parte-hartzen dute, esaterako, 2015ean Ingalaterrako txapelketan parte-hartu zuten eta “Spirit of Mixed Ability Rugby Trophy” garaikurra irabazi zuten. Aipatzekoa da ere, horri esker 2017an Gasteizen burutu zela Munduko Errugbi Inklusiboko Txapelketa hamabost talde bildurik.

5.Taula. Gaztegi Errugbi Talde Inklusiboaren karakterizazio fitxa

ASK ekimenaren karakterizazio fitxa		
Egileak: Cristina Rojo, Garazi Ojanguren, Maddi Jauregi eta Maialen Aguado		
Ekimenaren izena	Gaztedi Errugbi Talde Inklusiboa	
Urtea edo epealdia	2012. urtean sortu zen eta gaur egun oraindik ere martxan dabil.	
Identifikazio-datuak	Entitatea edo talde sustatzaile, antolatzailea	Gaztedi Errugbi Taldea antolatzailea eta Vital Fundazioa sustatzailea.
	Zuzendaritza	Moisés San Mateos
	Lokalizazioa edo esku-hartze tokia	Lakua Zelaia, Gasteiz
	Kontaktua	info.gaztedi@gmail.com, David Izquierdo 945303045
	Web-orria	http://www.gaztedirugby.com
Abiapuntua (sortzeko arrazoia)	2010. urtetik proiektu bat martxan jarri zen, zeinak sindrome down eta bestelako ezgaitasun batzuk zituzten pertsonak errugbian barneratzeko intentzioa zuen. Izan ere, ordura arte ez zegoen inongo talderik, behar bereziak zituzten pertsonak beharrik ez zituzten pertsonekin batera jokatzen zutenak. Horrela, Espainiako horrelako inizatibetan lehenengoetarikoa izan zen.	

Misioa/ Helburu orokorra	Talde honek duen helburu nagusia, kirolaren bidez eta kasu honetan, errugbiaren bidez adimen urritasuna duten pertsonen gizarte integrazioa sustatzea da. Horretaz gain	
Jarduera nagusiak	Larunbatero 10:30etatik 12:00etara Errugbiko entrenamenduak izaten dituzte eta noiz behinka partiduak izaten dituzte. Horretaz gain, Munduko Errugbi Inklusiboko Txapelketan parte hartzen dute.	
Sektorea (azaldu)	Entitatea	Gaztedi Errugbi Taldea
	Administrazioa	Klub-eko zuzendaria
	Besterik	Babesleak (Euskotren, La bolsa generosa, euskal trenbide sarea) eta laguntzaileak (Radio Vitoria, Kirol Araba eta El Correo besteak beste).
Zein herritarrekin egiten den lan	Bereziki adimen urritasuna duten pertsonekin eta gainontzeko jokalariekin egiten da lan talde honetan.	
Esku-hartze eremua	Aisia	Alde batetik, funtzio psikologiko zein pertsonala du, izan ere, auto-errealizazio iturri bat izateaz gain, norbera eta besteei buruzko kontzientzia hartzeko esparrua sortzeko aukera ematen du. Bestalde, funtzio soziala ere badu, integrazioa bultzatzen baitu eta talde-kideen bizi kalitatea hobetzen du, komunitatearen garapenean lantzen.
	Gazteria	10-35 urte bitartez dituzten pertsonak aritzen dira.
	Besterik: (zehaztu)	Behar bereziak dituzten pertsonak.
Baliabideak	Ekonomikoak	Gasteizko udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza. Baita kuotak ere.
	Giza- baliabideak	Entrenatzaileak eta jokalaria.
	Materialak	Ekipamendua, baloiak...
	Logistikoak	Zelaia, aldagelak
Profesionalen perfila	Taldea honetan parte hartzen duten profesionalak, taldearen entrenatzaileak dira eta kirol-entrenatzaileak ere. Hauen funtzioak, antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea dira.	
Zerk egiten du ekimen hau ASK ?	<p>Frouferen ezaugarriak kontuan hartuz, esan daiteke ekimen hau ASKaren barruan kokatzen dela izan ere, parte-hartze kolektiboa sustatzen du errealitatearen ezagutza sakonago bat emanez eta banakakoaren zein taldeen berdintasuna areagotuz. Gainera, bizi asoziatiboa bultzatzen du gizarte aldaketei indarra emanez besteak beste. Baita protagonismo pertsonala ere, auto-errealizatorako gai izateko. Horretaz gain, ekimen honek adin tarte ezberdinak hartzen ditu eta gainera, pertsona guztien bizi kalitatea hobetzen ahalegintzen da.</p> <p>Bestalde, Ander-eggen jardunbideetan oinarrituz gero, ekimen hau jarduera ludikoen multzoan kokatzen da kirol bat baita zeinak, garapen fisiko zein psikikoan laguntzen duten. Solidaritatearen</p>	

	zentzua sustatzeko eta garatzeko helburua dute eta hori garrantzitsua da, bai eta osasun arazoak, psikikoak eta portaera-arazoei aurre hartzeko ere.
--	--

Iturria: Egikari propioa

6.Taula. Gaztegi Errugbi Talde Inklusiboaren irudiak

ASK ekimenaren karakterizatzeko irudia (argazkia edo-eta beste)	
Egileak: Beto Carrillo	
Argazkia:	
Beste irudi bat:	

Iturria: Egikari propioa

4. Historias de Paz

“Historias de Paz” 2017an Granadako Unibertsitateak Lestonnac-Montaigne fundazioarekin batera burututako proiektua da. Proiektu honen planteamendua sortzeko, Kulturarteko Esku-Hartze Proiektuaren (ICI) komunitate diagnostikoaren monografia erabili da baita Lestonnac-Montaigne fundazioak auzoko biztanleekin burututako hurbilpen parte hartzailea.⁴

⁴ ICI proiektua (Proyecto de Intervención Comunitaria Intercultural) Obra Social “La Caixa”k bultzatutako eta finantzatutako ekimena da, zeinak jarduera komunitarioa berreskuratu eta eremu sozio kulturalaren

Ekimen hau Granadako La Paz auzoan gauzatu zen, bazterketa zona batean kokatuta dagoena, “Zona Norte” izenaz ezagutzen dena, beste auzo batzuekin batera (Almanjayar, Rey Badis, Joaquina Eguaras, Cartuja, Campo Verde, Casería de Montijo). Zonalde hau administratiboki eta instituzionalki baztertua dago, drogen trafikoa eta delinkuentziaren ugaritasuna, pobrezia ekonomikoa eta energetikoa, enplegu falta dira komunitate honen bazterketaren kausak eta ondorioak.

Halaber, proiektu honek helburu nagusitzat, komunitateak berak dituen alde positiboen identifikazio eta sustapena du, parte hartze komunitarioaren bidez, eraldaketa sustatzeko “El objetivo principal es tanto identificar como poner en valor las potencialidades, capacidades, fortalezas y recursos de los que dispone la comunidad, promoviendo procesos de cambio y transformación partiendo de la base de la participación comunitaria” (Historias de Paz “UGR Solidaria”, 2017). Kontuan hartzeko alderdia da, proiektua belaunaldiartekoa dela, beraz, belaunaldi ezberdinen parte hartzea sustatzeko helburua badu.

Era berean, proiektu honek ASKren ezaugarri zein helburu orokorrekin lotutako premisak ditu:

Los objetivos de este proyecto y de las actividades son: Dar a conocer los relatos de las personas que constituyen el barrio de La paz, haciendo hincapié en sus potencialidades y la diversidad cultural de las mismas; Luchar contra la estigmatización que sufren las personas del barrio: Visibilizar las capacidades y las fortalezas que tienen las personas del barrio desde el punto de vista de los más mayores y los más pequeños; Crear un ambiente de participación comunitaria en el barrio con estos microproyectos interculturales e intergeneracionales; Fortalecer los vínculos entre los abuelos/as y nietos/as que participen. (Historias de Paz “UGR Solidaria”, 2017).

esentzia itzuli nahi duen. Ildo honetatik, komunitate osorako baliabidea da baina bereziki, zaugarritasun egoeran dauden sektoreei zuzentzen zaie. Gaur egun, 40 proiektu daude Espainiar estatuko komunitate autonomo ezberdinetan zabaldua.

Ezaugarriei dagokienean, ekimen honek parte hartze kolektiboa bultzatu nahi du, La Paz auzoko bizilagunen komunitateari zuzentzen zaiena. Horrez gain, pertsonengan jartzen da protagonismoa, euren ahotsak eta esanbeharrekoak entzuteko zein komunitate honen indarguneak, gaitasunak eta abileziak mahaigaineratzeko, estigmak eta aurreiritziak apurtu, jarduera ezberdinetan parte hartuz. Bestetik, belaunaldiarteko proiektua da, baita interkulturala, non parteideek komunitateari ekarpen anitzak egiteko aukera ematen zaien. Horrez gain, harremanak indartzeko espazioa sortzen da, non haurrek zein aitona-amonak elkarrekin jarduten duten. Honek guztiak, azken helburu gisa, pertsonen eta norbanakoen bizi-kalitatearen hobekuntza bilatzen du, bazterketa espazio horren garapen sozial zein kulturala.

Zentzu honetan, eta helburu hauek lortzeko, proiektuan parte hartze metodologiak erabili dira: ametsen tailerra, photo-voice eta bizitza istorioa. Metodologia parte-hartzaileak xede horiek lortzeko erremintak dira:

Las metodologías participativas, se entienden como herramientas del trabajo profesional en el ámbito micro-local, es decir, en distritos, municipios o barrios, las cuales buscan contribuir en el proceso de la transformación social, buscando la integración comunitaria y la cohesión social. La participación ciudadana es un medio para mejorar la calidad de vida (Basagoiti, 2003).

Metodologia hauetan sakontzea interesgarria da, Animazio Soziokomunitarioaren ezaugarriei bete betean egokitzen direlako. Esaterako, ametsen tailerra, belaunaldiarteko eta kulturarteko parte hartzean oinarritzen da, non parte hartzaileek, euren irudimena eta sormena erabiliz, beti kooperazioan, euren ametsak, beraien senideenak eta bizitza proiektuak marrazten dituzten.

Photo-voiceari dagokionean, komunitateko kideek La Paz auzoko leku esanguratsuen argazkiak atera behar dituzte, eta beraientzat zergatik den esanguratsua esan:

Mediante el Foto-voz, los participantes investigan y promueven las acciones que se llevan a cabo, ya que son las mismas las que lo dirigen, por lo cual, la involucración es mayor. Además, fomenta tanto la creatividad como el respeto, la sensibilización

hacia lo cotidiano y artístico, el trabajo en grupo y la motivación de obtener información, experiencias comunes, entre otras cosas. De esta forma, el hecho de ser conocedores de nuestra comunidad y entorno nos hace participar y no delegar ni dejar ser representados por agentes externos a esta. (Escalante Ruiz, 2013).

Azken metodologia honek, komunitatearen ezagutza horretan sakontzen du, bizi den testuingurua ezagutzeko eta bertako indarguneak, ahuleziak eta hobetzeko alderdiak aztertzen dira.

Bizitza istorioei dagokionean, La Paz auzoko biztanleen ahotsa eta istorioa entzuteko ekintza modura ulertzen da, bazterketaren eremutik at, gaitasun ugari eta anitzak, eta ekintzailtza duten pertsonak direla ezagutarazteko, estigmatizazio horrekin apurtzeko bidean.

ASKko jardunbideak aipatzerakoan, Ander-Eggen 5 kategoriak kontuan hartuta, bertako ekimenak jarduera artistiko ez profesionalen multzoan sailka ditzakegu: ametsen tailerra marrazketari loturiko ekintza da; aldiz, photo-voice-a kultur forma berrietan sartuko litzake, fotografia eta ahotsezko kontaktak batzen baititu; azkenik, bizitza istorioa ere kultur forma berrietan sartuko litzake, kasu honetan, helburu konkretu batekin sortutako ekintza baita: pertsona horien ahotsak entzunaraztea, euren istorioak ezagutaraztea. Ekintza gauzatu ostean, marrazkiak zein istorioak auzoan zehar jarri ziren, partaideen baimenarekin.

7.Taula. Historias de Paz karakterizazio fitxa

ASK ekimenaren karakterizazio fitxa		
Egileak: Cristina Rojo, Garazi Ojanguren, Maddi Jauregi eta Maialen Aguado		
Ekimenaren izena	"Historias de Paz", UGR Solidaria.	
Urtea edo epealdia	Ekimen zehatz hau 2017ko otsailetik, 2018ko otsaila bitartera garatu zen.	
Identifikazio-datuak	Entitate edo talde sustatzaile, antolatzailea	Lestonnac-Montaigne Fundazioa (Granada), Granadako Unibertsitatea eta "La Caixa" ekimen soziala.

	Zuzendaritza	Sonia Plaza, Gizarte Langilea eta Psikologoa. Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuetako departamenduko doktorea.
	Lokalizazioa edo esku-hartze tokia	Granada hiriburua, La Paz auzoa eta bertako Lestonnac-Montaigne Fundazioko espazioa (“la escuelita”).
	Kontaktua	soniahplaza@ugr.es
	Web-orria	https://vicereresponsabilidad.ugr.es/ugrsolidaria/ http://www.fundacionlestonnacmontaigne.org/documentos/ https://es.calameo.com/read/00444377661a5555fb8de
Abiapuntua (sortzeko arrazoia)	Lestonnac-Montaignek “La Paz” auzoan duen zentro soziohezitzailean behatutako eta bildutako eskaera eta beharrizanen zein 2017an sortutako monografiatik abiatuta, auzoko indarguneak eta gaitasunak agerian uzten dituen ekimena sortzeko proiektua abian jartzen da. Halaber, baztertutako gunea izatearen etiketatik eta pobrezia zein delinkuentziaren estigmatik haratago joan nahi duen proiektua da- “La escuelita” (bertako zentrorra) gerturatzen diren zein auzoko beste kideen iritzia eta parte hartzea sustatzen da proiektua martxan jartzeko.	
Misioa/ Helburu orokorra	Proiektu honen helburu orokorra, parte hartze soziokultural komunitarioaren bidez, Granadako “La Paz” auzoan bizi diren adineko pertsonen zein umeen bizi-kalitatearen hobekuntza sustatzea da, euren istorio soziokulturalaren eta bizitza-istorioaren berreraikuntzan enfasia jarrita.	
Jarduera nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Ametsen tailerra: Jarduera honetan, aitona-amonek eta bilobek, elkarrekin, euren bizi-proiektuaren eraikuntzarako eta euren auzorako zituzten ametsak, nahiak eta desioak marraztu behar zituzten. Horrez gain, aitona-amonek euren biloben bizitzarako nahi zuten etorkizuna irudikatu behar zuten. • Photo-voice: Jarduera honetan, aitona-amonek, bilobekin batera, auzoko gune edo leku esanguratsuei argazkiak atera eta horrek burura ekartzen zizkien pentsamenduak, oroitzapenak eta sentimenduak kontatu behar zituzten, argazkia eta kontakizuna lotzeko. • Bizitza istorioa: Ekimen honetan, aurreko jardueretan parte hartutako aitona amonek beraien bizitzaren istorioa kontatzen dute, galdera batzuen baitan. Honen xedea, beraien ahotsa eta iritzia ezagutzera ematea da, izandako bizipenak, familiarekin duten harremana eta auzoaren inguruko ikuspegia islatuz. • Muralak/esposizioak: Bildutako material guztia Lestonnac-Montaignek “La Paz” auzoan duen elkartean egon zen ikusgai eta baita Granadako Unibertsitateko Gizarte Langintza eta Lan Harremanen fakultateko hall-ean. 	

Sektorea	Entitatea	<p>Lestonnac-Montaigne Fundazioa, hezkuntza sisteman ematen diren beharrizan sozial eta hezkuntza beharrizanen aurrean, hezkuntza ez formaleko eta formaleko dimentsioan jarduten duen izaera erlijiosoko entitatea da, Andaluziako Mariaren Konpainiaren parte dena. 1999an Lestonnac-Montaigne fundazioa sortzen da, pertsonen garapen integrala bultzatzeko xedez, batez ere zaugarritasun egoeran dauden kolektiboek zuzendutako ekintzak burutuz.</p> <p>Bestetik, fundazioarekin elkarlanean eta proiektuaren sustatzaile nagusi gisa dugu UGR Solidaria, Granadako Unibertsitate Publikoak aurrera eramandako ekimena da, non elkartasuna sustatzeko proiektu ezberdinak eramaten diren, parte hartzea eta boluntarioria sustatuz. Kasu honetan, "Historias de Paz" proiektuak lortu zuen mikroproiektua aurrera eramateko aukera eta finantziarioa.</p>
	Administrazioa	Kasu honetan, administrazio publikoaren parte da, Granadako Unibertsitateak aurrera eramaten duela, maila autonomikoan.
Zein herritarrekin egiten den lan	Bazterketa egoeran eta espazio baztertua bizi diren "La Paz" auzoko biztanleekin, bereziki, aitona-amonak eta euren bilobak. Bestetik, ijitoen etniako pertsonak dira gehienak, hori dela medio, kulturartekotasuna lantzen da ere.	
Esku-hartze eremua	Aisia	Aisiaren funtzioak aztertuz, proiektu honek hainbat funtzio betetzen ditu: dimentsio pertsonalean, onura pertsonala ekartzen duen ekimena da, ikusezin bihurtutako kolektibo eta pertsona zehatzen hitza entzuteko espazioa sortzen duela. Bestetik, funtzio soziala ere betetzen du, bere helburuetako bat aitona-amonen eta euren biloben harremana sendotzea baita, eta gainera, denen arteko komunikazioa ahalbidetzen duen ekimena da.
	Gazteria	3 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoak.
	Adineko pertsonak	La Paz auzoko aitona-amonak, ekimenetan parte hartu zuten umeen senideak.
Baliabideak	Ekonomikoa	UGR Solidariak finantzaturako proiektua da, non diru kopuru zehatz bat eman zen.
	Giza-baliabideak	Proiektuaren zuzendari den Gizarte Langilea, "La Paz" auzoko zentroaren zuzendaria eta boluntarioak (gizarte langintzako ikasleak).
	Besterik:	Baliabide teknikoak (proiektua aurrera eramateko Monografiak, bertan egindako landa lanean

		oinarritutakoak), baliabide espazialak (ekimena burutzeko gunea, Lestonnac-Montaignek utzitako espazioa, euren elkarte eta Unibertsitateko hall-a) eta baliabide materialak (argazki kamerak, margoak, kartulinak eta jatekoa).
Profesionalen perfila	Gizarte Langilea eta psikologoa, zeinak proiektuaren diseinuan, aurrelanketan, gauzatzean eta ebaluazioan parte hartu zuen, eta boluntarioak, Gizarte Langintzako "Trabajo Social en Zonas Marginadas" irakasgaiko ikasleak.	
Zerk egiten du ekimen hau ASK?	La Paz auzoko komunitatearen garapen pertsonala zein kolektiboa bilatzen dituelako, komunitate horren partaideen parte hartze aktiboa sustatuz, euren bizi-kalitatearen hobekuntza bilatzeko. Proiektu honetan burutzen diren ekintzek ere, harreman sarearen areagotzea bilatzen dute, auzoko bizilagunen arteko harremanetan sakonduz, besteen istorioen berri izanda, baina belaunaldiarteko ekimena izatean ere, senideen arteko harremanak sendotzea bilatzen da. Horrez gain, kultura ezberdinen arteko bizikidetzak sustatzeko helburua ere badu, auzo honetan nagusi den ijituaren kultura euren bizitza-istorioetan islatuz eta kultura ezberdinen arteko hartu emanentzako gune eta ekintzak planteatuz. Horrez gain, estigmatizazioaren aurkako ekintza soziala izatean ere, inpaktua du bai auzo horretan bai proiektua ezagutu duten biztanleengan. ASK praktika soziala den neurrian, pertsonen arteko elkar harremanak ematen da, non norbanakoen interesak, desirak, ametsak zein gatazkak interazioaren atal garrantzitsuak diren: proiektu honetan horren inguruko ekimenak burutu diren neurrian, euren ametsen forma emateko eta konpartitzeko aukera izan dute.	
Beste ezaugarri garrantzitsuak :	Proiektuan parte hartze zuzena izatea, bai proiektu horren aurrelanketan (burutuko ziren ekimenen aukeraketa eta planifikazioa) bai gauzatzean (bertan dinamizazio lanak egitea) eta azkenik, ebaluazioa (proiektu osoaren lana egitea, bitarteko ebaluaketa eta azken ebaluaketa burutuz).	

Iturria: Egikari propioa

8.Taula. Historias de Paz irudiak

ASK ekimenaren karakterizatzeko irudia (argazkia edo-eta beste)

Egileak: Maialen Aguado

Argazkiak:

Ametsen tailerreko argazkiak (2018).



Beste irudi bat:

“La escuelita”, Lestonnac-Montaigne fundazioko zentroa (2018):



Iturria: Egikari propioa

5. Auzolanean gara!

Ekimenen kutxa amaitzeko, azken ASK-ko jarduera dugu auzolana. Hau, Mitxeltoarena (2011) egilearen arabera, “auzolan pertsonen oinarrizko beharrianak Garapen Komunitarioaren bidez asetzea helburu duen egitasmoa da” (13. or.)⁵. Hau kontuan hartuta, Ibaizabal Ikastolan *Auzolanean gara!* proiektua hautatu dugu hau aztertu eta lantzeko.

Auzolan honek ez du sorrera urte zehatz bat, hasiera batean, modu informal eta ez-arautu batean burutzen baitziren auzolan ekintza hauek. Azken finean, ikastolen izaera kooperatibista eta komunitarioaren jarraipena da auzolan hau eta data zehatz bat ez duen arren, Ibaizabal Ikastolaren sorreratik darama martxan auzolanak, gutxi gora-behera 1999.urtetik, alegia. Denborarekin eta ekintzen eraginkortasuna zein familien parte-hartzea ikusita, urtero aurrera eramaten den proiektuan bilakatu da, prozedura eta antolaketa zehatz bat edukirik honetarako.

Auzolan proiektu hau, Durangoko Ibaizabal Ikastolan kokatzen da, honen eraikinean eta ingurunean hain zuzen ere. Mantenu, garbitze eta konponketa lanak egiten dira oro har, tarteka apainketarako materiala ere sortuz. Proiektu honen parte-hartzaileei dagokionez, Ibaizabalgo familiak (ikasle eta gurasoak) eta langileak dira, kontuan hartuta, batxilergoko eta lanbide heziketako hezkuntza eskaintzen dela eta beraz, adin tarte horretan kokatzen diren gazteak eta hauen familiak izango direla proiektuaren protagonista nagusiak.

Auzolan honen helburu orokorra, familien parte-hartze aktiboa bultzatzea da eta zehatzak berriz, ikastolaren mantenu lanetan dirua aurrezteak, familiak ikastolako komunitatearen kide aktibo sentitzea eta baita ikastolan hobekuntza nabarmenak egitea dira.

Auzolan hau aurrera eramateko, Artezkaritza batzordeak lan handia egiten du ikastolan dauden beharrak identifikatu eta hauei erantzun bat emateko. Aldi

⁵ Mitxeltoarena, Jasone (2011). *Auzolanaren cultura. Iraganaren ondorea, orainaren lanabesa, etorkizunaren giltza*. Tafalla: Txalaparta.

berean, irakasleriaren parte-hartzea ezinbestekoa da, beraiek baitira auzolanaren egunean eta baita aurreko prestaketan dena antolatzen lan egiten dutenak.

Esan beharra dago, ekintzak anitzak izan daitezkeela urtez-urte, ikasturte bakoitzean sortutako beharren arabera definitzen baitira ekintza zehatzak. Hala ere, garbiketa orokorra eta gela eta lan-eremuen mantenua urtero burutzen diren ekintzak dira. Adibide moduan, 2014-2015 ikasturtean, informatika gela berri baten irekiera gauzatu zen, gela hau horretarako egokitzuz eta ordenagailu guztien funtzionamendua martxan jarriz, baita ere, urtero burutzen den Ibaizabal errekaen garbiketa aurrera eramanez.

9.Taula. Auzolanean gara! karakterizazio fitxa

ASK ekimenaren karakterizazio fitxa		
Egileak: Cristina Rojo, Maialen Aguado, Maddi Jauregi eta Garazi Ojanguren.		
Ekimenaren izena	Auzolanean gara!	
Urtea edo epealdia	Ibaizabal ikastolaren sorreratik darama martxan, nahiz eta denboran zehar joan diren antolaketa eta arauak gutxinaka finkatzen. Ibaizabal ikastolak gutxi gora-behera 1999.urten ireki zituen bere ateak eta jakinik errota bat zela, konponketa lan ugari egin behar izan ziren ikastola martxan jartzeko, konponketa hauetan bazkide diren bost ikastolek eta familia ugariak parte-hartu zuten, bertatik etorririk auzolanaren esentzia.	
Identifikazio-datuak	Entitatea edo talde sustatzaile, antolatzailea	Ibaizabal ikastola sustatzailea
	Zuzendaritza	Artezkaritza batzordeko kideak eta ikastolako zuzendaritza (zuzendaria eta ikasketa burua)
	Lokalizazioa edo esku-hartze tokia	Ibaizabal ikastola; Intxaurrondo kalea, 54, 48200, Durango (Bizkaia)
	Kontaktua	946215877 idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
	Web-orria	https://www.ibaizabalikastola.eus/eu
Abiapuntua (sortzeko arrazoia)	Urtez urte ikastolan eta bere ingurunean sortzen diren beharrei erantzuteko, ikasle, langileria eta gurasoen gaitasun eta lan-eskua erabili nahi izan da zentroan, ikastolan sortutako beharrei ikastolak berak erantzuna emateko eta ikasturte bakoitzeko familien laguntzaz zentroaren mantenua eta garbiketa aurrera eramateko.	

Misioa/ Helburu orokorra	Ikastolako familien parte-hartze aktiboa bultzatzea da auzolanaren helburu orokorra. Eta helburu zehatzagoak ordea, ikastolaren mantenu lanetan dirua aurrezte, familiak ikastolako komunitatean kide aktibo sentitzea eta ikastolan hobekuntza nabarmenak egitea izango dira.	
Jarduera nagusiak	Orokorrean ikastolako mantenu, txukuntze eta garbiketa lanak eramaten dira aurrera baina urtez urte eta ikasle kopuruak gora egin duenez, behar ezberdinak sortzen dira ikasturte bakoitzean eta beraz, jarduera edo ekintza zehatzak ere egiten dira (informatika gela handitu, kirol instalazioak egokitu, informatika arloa eguneratu ...)	
Sektorea (azaldu)	Entitatea	Ibaizabal ikastola
	Administrazioa	Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza sailburua
Zein herritarrekin egiten den lan	Ikastolako familiak (guraso zein gazte) eta langileak (irakasle, garbiketako langile, zuzendaritzako kide ...).	
Esku-hartze eremuak	Aisia	Aisiaren funtzioak aztertuz, proiektu honek hainbat funtzio betetzen ditu: dimentsio pertsonalean, onura pertsonala ekartzen duen ekimena da, autorrealizazioa bultzatuz eta aldi berean, kolektibo horren parte zarenaren sentimendua indartuz. Bestetik, funtzio soziala ere betetzen du, ikastola osatzen duten beste familia eta langileekin harremanak eta sare sozialak estutuz. Bestalde, funtzio ekonomikoa ere barneratzen du, auzolan honen bitartez, ikastolak zein familiek dirua aurrezten laguntzen baitu. Azkenik, funtzio berritzaileari dagokionez, parte hartzaileen sormena sustatu egiten da eta ikastolaren beharrei modu alternatibo batean aurre egiten zaie.
	Gazteria	Batxilergoko ikasleekin lan egiten da, ikasle izanik beraien parte-hartzea beharrezkoa da ikastolako beharrak zeintzuk diren ezagutzeko.
	Familiak	Auzolan egunerako eta honen antolaketarako beharrezkoak dira ikastolako familiak, bakoitzak ahal duen moduan egiten duen ekarpena. Familia bakoitzak bere gaitasun eta potentzialitateak erabiliko ditu ikastolaren beharrak asetzen laguntzeko.
Baliabideak	Ekonomikoak	Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailburuaren diru-laguntzak, ikastolaren diru-sarrerak
	Giza-baliabideak	Ikastolako langileak, gurasoak eta ikasleak
	Materialak	Ekintzaren arabera beharrezko materiala (garbiketa materiala, mantenerako tresnak ...)
	Logistika	Ikastola osoan zehar egiten da lan baina ekintzaren arabera aldatuko da baliabide logistiko zehatza (bilera gela, biltokia ...)

Profesionalen perfila	Profesional ezberdinek parte-hartzen dute prozesuan. Egia da ez dela profesional zehatz bat behar (Gizarte langile, psikologoa ...) baina prozesua antolatzen eta aurrera eramaten dutenak oro har, zentroko langileak (orokorrean irakasleak) eta gurasoak izaten dira. Gurasoek beraien gaitasunen arabera egiten dute aportazioa eta beraz, ahalmen ezberdinetako profesionalak (iturginak adibidez) egongo dira, ikasturtearen eta parte-hartzearen arabera.
Zerk egiten du ekimen hau ASK ?	<p>Auzolan honek, Sanchez eta Froufe-ren ASK-aren ezaugarriak jarraitzen ditu. Alde batetik, parte-hartze kolektiboaren aldeko prozesua da, ikastolako familia eta langileek modu aktibo batean parte-hartzen baitute auzolan hauetan, ulerturik ikastola denona den heinean, modu kolektibo batean egin behar dugula honen alde. Bestalde, elkarte bizitzaren aldeko prozesua ere bada eta boluntarioa, ulerturik bertan lan egiten duen pertsonak ez dutela sari edo irabazi asmorik. Gainera, gizabanakoaren protagonismoa ere ezaugarri garrantzitsu bat da ekimen honetan, parte-hartzaile oro baita beharrezko eta garrantzitsua prozesuan, norbere ekarpena dena dela. Belaunaldi artekoa ere bada ekimena, adin-tarte ezberdinetako jendeak parte-harturik bertan, gazteak, helduak eta adinekoak. Azken finean, ikasleak oro har gazteak izango dira eta langile zein guraso edo familiak, bai heldu eta adinekoak. Azkenik, bizi-kalitatea hobetzen duela ere esan daiteke, norbere auto-errealizazioan eragina izateaz gain, harremanak sortu eta sendotzeko balio du ekimenak eta batez ere, guztiona den ikastola aurrera eramateko norberaren alea ere jartzen da prozesuan zehar.</p> <p>Horrez gain, Ander Egg egilearen ASK-ko jardunbideen sailkapenari erreparatuz gero, ikus daiteke nola Formakuntza jarduerekin bat egiten duen auzolan honek. Auzolanaren aurreko antolaketa, hainbat bilera egin behar izaten dira, lan-bilerak alegia, taldeen antolaketarako, materiala nondik lortuko den adosteko, ekintzak zehazteko eta abar. Gainera, jarduera sozialen jardunbidean ere sar daiteke auzolana, behar kolektiboari arreta ematen baitie auzolanak eta konponbidea ematea ere errazten du. Auzolan honen bitartez, familiak eta ikastolako langileak mobilizatzen dira ekintza bateratuak egiteko.</p> <p>Azkenik eta orain arte gauzatu diren ekintzei erreparatuz, jarduera artistiko ez profesionaleko ekintzak egin direla ikus daiteke, zehazki arte popularreko ekintzak. Azken finean, konponketa eta mantenu lanetarako, egurrarekin lan egin izan da besteak beste. Apainketa arloan ere, lan ezberdinak egin izan dira; leihoak apaindu, egurrarekin apaingarriak egin eta abar. Beraz, arte popularra adierazteko forma bat ere izan da auzolan hau.</p>
Beste ezaugarri garrantzitsuak:	Auzolan hau, herritarrok eta kasu honetan ikastolako familiek komunitatearekin eta bereziki ikastolarekin duten konpromisoa betetzeko bidea da. Ibaizabalek auzolanean eginiko ekintza eta

ekimen ezberdinek ikastolaren izaera kooperatiboa mantentzen laguntzen dute.

Iturria: Egikari propioa

10.Taula. Auzolanean gara! Irudiak

ASK ekimenaren karakterizatzeko irudia (argazkia edo-eta beste)

Egileak: Ibaizabal ikastola

Argazkia:



Beste irudi bat:



Iturria: Egikari propioa